

PRENTSA OHARRA

Uztailaren 7, 8 eta 9an GIPUZKOAKO OSTATUEN SEKTOREAN GREBA

ELA (% 67,60), CCOO (% 15,49), LAB (% 14,08) eta UGT (% 2,80) sindikatuek uztailaren 7an hasiko den greba deitu dugu Gipuzkoako ostatuen sektorean.

ASPAGI-ADEGI eta GIPUZKOAKO OSTALARITZAKO ELKARTEA patronalek Ostatuen Hitzarmenaren negoziazioan izandako jarreraren aurrean, mobilizazioa ez den beste biderik ez diete uzten sektoreko langileei.

Urtarrilaren 28an negoziazio mahaia eratu zen eta ordutik 5 bilera egin dira. Nahiz eta datuek argi eta garbi adierazten duten sektoreak ustekabeko bilakaera positiboa duela, Patronalek sektoreak sufritzen hari den ziurgabetasunaren aitzakia erabili dute oso aurrerapausu txikia egiteko negoziazio mahaian.

2020ko martxotik, langileen lan baldintzak okertzen ari dira, besteren artean, lan egutegiak, asteko atsedanak, egutegi-aldaketak eta abar. Honaino iritsi gara...
Argi dago patronalen asmoa langileen pobretzea eta lan baldintzak okertzea dela.

Nahiz eta langileen aldarrikapen plataformak 22 puntu dituen, patronalek, plataformako 2 puntu baino ez dituzte aipatzen (soldatak eta ratioak), eta plataformatik kanpo dauden beste bi puntu ekarri dituzte negoziazio mahaira, hitzarmen kolektiboko 25c artikulua eta lanaldi partzialeko aldizkako kontratu finkoen erregulazioa.

Soldatari buruzko gure aldarrikapenak:

2020: KPI+2

2021: KPI+2

2022: KPI+2

2023: KPI+2

Ratioen puntuan: oso garrantzitsua da solairuetako zerbitzarien departamentuko ratioak erregulatzea. Sektoreko departamendurik desegituratuena eta feminizatuena baita.

Patronalaren eskaintza:

2020:0

2021:0

2022: % 3,3

2023: % 3

2024: KPIa, % 2ko mugarekin

Patronalek ez dute puntu hau negoziatu nahi hotel bakoitzeko izarren arabera.

Planteamendu hori onartezina da langileentzat. Izan ere, erosteko ahalmena gutxitzea eta lan baldintzen okertzea ekarriko luke.

Gaur egungo testuinguruaren arabera, sektorea, etengabeko hazkundera dago, hotel berriak irekitzen ari dira eta logelen prezioak etengabe igotzen ari dira.

Sektorean okupazio plazak igo diren arren, 2022ko apirilera langile kopurua 2019ko apirilera baino txikiagoa da. Datu honek enplegu suntsiketa bat gertatzen ari dela adierazten du.

Testuinguru honetan, negoziazio kolektiboan jauzi garrantzitsurik ez badago, langileek datozen egunei begira, ez dute baztertzen mobilizazio gehiago deitzea.